

## Oñatiko Kultura Saria, zergatik ez?

Hainbat sari banatu dira Gabonetan Oñatiko udalean urtero legez. Batetik, Urteko Kirolari Onenen Saria; bestetik, Erakusleiho Onenen Saria. Orain 10 bat urte jarri ziren abian sariok EAJ-PNVren ekimenez, udal-gobernuan zegoenean. Xedea izan zen kirolarien eta merkatarien lan ona, ahalegina eta ibilbidea aitortzea, balioan jartzea eta bistaratzeta. Aitorpen-sariak izan dira, beraz, hasiera-hasieratik.

Hala ere, Oñatin ez da kulturaren esparruan diharduen edo jardun duen inor saritzen. Ez dago Kultura Saririk emateko modurik! Eta, horren aurrean, EAJ-PNVren udal-taldeak Kultura Saria sortzea proposatu zuen/du, bai 2017ko, bai 2018ko aurrekontuetan aurkeztutako ekimenetan. EH Bilduren udal-gobernuak, ordea, ezezko borobila eman zion/dio proposamenari. Haien erantzuna, hauex: “Ez dugu egoki ikusten; eragileei aitortza egin baino, eragileen arteko **konpetentzia ez sanao** eragin dezake”. Hara hor, bada! EH Bilduren erantzun hori aitzakia izan da EAJ-PNVren ekimena, besterik gabe, atzera botatzeko? Hala, EAJ-PNVren udal-taldekideoi galdera hau etorri zaigu burura: herriko kirolari onenen artean eta erakusleihoak ondoen apaintzen dituzten merkatarien artean ez al da “konpetentzia ez sanao” sortzen?

Oñatin badago talentua. Baita, kulturari, saritzeko moduko ekarpena egin dion oñatiarrik ere. Euskal Herritik kanpo eta Europan sariak irabazitakorik ere bai. Esaterako, azken egunetan sona handia izan duen *Handia* filmaren zuzendarietatik bat, Aitor Arregi. Ez dago, ostera, horrelako oñatiarrik saritzeko biderik. Hutsune handia dago EAJ-PNVren iritzian, eta tristura sortzen digu hainbat herritan ezarrita dauden sariak ematerik ez izatea. Horregatik, zera eskatzen diogu beste behin ere EH Bilduren udal-gobernuari: kulturaren esparruko sortzaileak aintzat hartzea eta Kultura Saria sortzea lan ona eta ibilbidea aitortzeko eta eskertzeko, balioan jartzeko eta bistaratzeko. Ea gai garen 2019. urtean Kultura Saria banatzeko!

OÑATIKO EAJ-PNVren UDAL TALDEA

2018ko otsailaren 8an

## Premio a la Cultura en Oñati, ¿por qué no?

Como todos los años, estas pasadas Navidades el Ayuntamiento de Oñati ha vuelto a hacer entrega del Premio al Mejor Deportista del Año y del Premio al mejor escaparate comercial. Dicha iniciativa, ya habitual en el municipio, fue puesta en marcha por el gobierno municipal de EAJ-PNV, hace al menos ya 10 años, con el objeto de dar valor y reconocer el trabajo, el esfuerzo y la trayectoria de las y los deportistas así como de los comerciantes oñatiarras. Por lo tanto, desde su inicio, han sido unos premios ligados al reconocimiento.

No obstante, a día de hoy Oñati no premia a nadie que trabaje o haya trabajado en el ámbito cultural. ¡No hay forma de dar Premios a la Cultura en el municipio! Ante tal situación, EAJ-PNV de Oñati ha propuesto crear el Premio a la Cultura como iniciativa en los presupuestos de 2017 y 2018. Sin embargo, el gobierno de EH Bildu siempre ha dado un rotundo no a dicha propuesta alegando que “no lo considera apropiado” o que “más que un reconocimiento, puede generar una **competencia insana** entre los agentes culturales”. ¡He ahí su respuesta! ¿Acaso no es esta una mera excusa para, sin mayor motivo, rechazar la iniciativa de EAJ-PNV? De ahí que todas y todos los miembros del grupo municipal de EAJ-PNV nos hagamos la misma pregunta: ¿es que no se crea una **competencia insana** entre las y los deportistas y comerciantes?

En Oñati hay talento y también oñatiarras dignos merecedores de un premio a la Cultura. Asimismo, los hay incluso quienes, más allá de Euskal Herria, han ganado premios en Europa. Como ejemplo de ello tenemos a uno de los directores de la película *Handia*, Aitor Arregi, del que tanto se ha hablado estos últimos días, pero lamentablemente, seguimos sin poder premiarlo a él u a cualquier otra/o oñatiarra ligado al ámbito cultural. Y es que en relación a ello, existe en Oñati un gran vacío y desde EAJ-PNV nos entristece no poder hacer entrega de un premio de este tipo, como lo hacen en otros municipios. Por ello, una vez más, pedimos al gobierno municipal de EH Bildu que tenga en cuenta a los agentes, creativos y/o artistas del ámbito cultural y que cree el Premio a la Cultura para agradecer, valorar y reconocer su trabajo, su esfuerzo y su trayectoria. ¡Ojala en 2019 seamos capaces de repartir Premios a la Cultura en Oñati!

GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV de OÑATI

8 de febrero de 2018